

**FORU AGINDU HONEN ENTZUNALDIAREN ETA JENDAURREKO
INFORMAZIOAREN TXOSTENA: FORU AGINDUA, NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO IKASTETXE PUBLIKOEN SAREA BERRANTOLATZEN DUEN
UZTAILAREN 3KO 80/2019 FORU DEKRETUAREN ERANSKINA ALDATZEN
DUENA.**

Ezarritako prozedurari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duen foru aginduaren testua Gardentasunaren Atarian argitaratu zen 2022ko otsailaren 2tik otsailaren 22ra bitartean, biak barne.

Aldez aurreko kontsultaren xedea da foru agindu berriaren eraginpean gerta litezkeen herritarren eta ordezkariak duten erakundeen iritzia jasotzea honako aldaketa hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru agindua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedek eta egon litezkeen beste aukera batzuk (arauemaileak edo arauemaile ez direnak).

Hurrengo egunetan, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Eskolatzeko Bulegoaren posta elektronikoan lau mezu jaso ziren. Horietatik hiru alegazioak izan ziren eta laugarrena Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duen uztailaren 3ko 80/2019 Foru Dekretuaren eranskina aldatzen duen foru aginduaren testua aldatzeko eskaera.

- 1. alegazioa, partikular batek eta Erroko San Esteban HLHIPk egina.
- 2. alegazioa, Tebas-Muru Artederretako Udalak eta Beriaingo Udalak egina, bi udalerrri horietan bizi diren familia batzuen eskaerarekin bat eginez.
- 3. alegazioa, Tuterako Valle del Ebro BHiko zuzendaritzak egina.
- 1. eskaera, partikularrek egina.

1.- ERANTZUNA 1. ALEGAZIOARI:

Partikular batek eta Erroko San Esteban HLHIPk egindako alegazioek testu idatzi bera dute. Beraz, erantzun bateratua emanen zaie.

Eskola mapa honela aldatzea eskatu dute:

- *Bizkarreta-Gerendiainen bizi diren familietako seme-alabei hurbiltasunagatik Erroko San Esteban eskolara joatea dagokie. Errotik Bizkarreta-Gerendiaina 4 km daude. Hau da, 5 minutuko bidea.*
- *Bizkarreta-Gerendiaindik Garraldara, berriz, 17 km daude eta, tartean, Mezkirizko mendatea dago. Hau da, 35 minutuko bidea egin behar da.*
- *Gure seme-alabak Erroko San Esteban eskolara ekarri nahi ditugu, hurbilago dagoelako eta bide-segurtasunagatik. Izan ere, negu gogorra izaten dugu hemen, elurra, izotza...*

Familien eta eskolaren premiak azterturik, proposatu nahi da eskola mapa aldatzea familiek aukera izan dezaten beren seme-alabak eskolarik hurbilenera ekartzeko, hots, Erroko San Esteban eskolara. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak garraio eta jantokirako behar diren baliabideak bere gain hartu beharko lituzke.

ERANTZUNA: Udallerri batek edo herri batek Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batera duen atxikipena aldatzeak aldatutako herrien biztanle guztiei eraginen lieke. Hori dela eta, Erroibarko Udalak egin beharko luke eskaera hori. Hezkuntza Departamentuak, eskaera hori jaso ondoren, neurriaren bideragarritasuna aztertze beharrezko azterlanak egingen lituzke.

Alegazioa ezetsi egin da.

2.- ERANTZUNA 2. ALEGAZIOARI:

Tebas-Muru Artederretan eta Beriainen bizi diren guraso batzuek alegazioak egin dituzte eta laguntza eman diete bi udalek.

Eskola mapa aldatzea eskatzen da, Hegoalde Ikastola hartuz D eredurako erreferentzia-ikastetxetzat.

Eskaera hau egiteko alegatutako argudioak funtsezko bi ardatz hauetan biltzen dira:

batetik, ikastetxearen hizkuntza ereduan, eta, bestetik, herriaren errotzean:

- *Proiektuaren arabera, Noaingo ikastetxe publikoa da gure erreferentzia-ikastetxea. Ikastetxe honek hiru hizkuntzatan irakasten du eta HIP-A, HIP-D eta HIP-G programak konbinatzen ditu. Hizkuntza murgiltzerik gabeko ikastetxea da, zeinetan enborreko irakasgaiak irakasten baitira euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Horrek berekin dakar euskarazko eskola-orduak gutxiago izatea eta, horrenbestez, euskara egoki irakasten dela ez bermatzea.*
- *Errotzeari dagokionez, gure herrietako haurrek dagoeneko eskubideak murriztuta dauzkate komunikazio-hizkuntza gaztelania duten beste hezkuntza eredu batzuk aukeratzen dituzten haurrekin alderatuta, eta halako adinetan ikastera kanpora ateratzeko ahalegina egin behar da.*

ERANTZUNA:

80/2018 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen du. Foru dekretu horretan ez dira inoiz ere ikastetxeak hezkuntza programaren arabera bereizten, AG zein D ereduak IIP programaren arabera.

Aipatutako foru dekretuak ikastetxeen sarea berrantolatzen du, besteak beste, baliabide publikoen hurbiltasuna eta erabilera eraginkorra kontuan hartuta. Hori dela eta, Nafarroako Foru Komunitatean badira herriak, zeinetan ikasleak hainbat herritako ikastetxeetan eskolatuta baitaude, ikasten duten hizkuntza-ereduaren arabera.

Alegazioa ezetsi egin da.

3.- ERANTZUNA TUTERAKO VALLE DEL EBRO BHIren ALEGAZIOARI

Tuterako Valle del Ebro BHIk egin du alegazioa. Hauxe da alegazioan adierazten dena:

- *Tuteran badira bi ikastetxe publiko. Aurtengo ikasturtean batek 9 ikastalde ditu esleitura eta besteak, 8. Hala ere, bi ikastetxeen arteko atxikipen-aldea 120 ikasletik gorakoa da. Valle del Ebro BHIk atxikitako ikastetxe bakarra du Tuteran, "Monte San Julián" ikastetxea. Gainerakoak herrietakoak dira eta horrek ere aldeak eragiten ditu garraiatutako ikasleen kopuruan.*

ERANTZUNA:

Ikastetxe publiko jakin bat bigarren hezkuntzako institutu bati atxikitzeko modua aldatzeak ikastetxe horri Hori dela eta, neurriak ukitutako udalerrietako udalek aurkeztu behar dute eskaera. Hori hala izanik ere, Hezkuntza Departamentuak, eskaera hori jaso ondoren, neurriaren bideragarritasuna aztertzeko beharrezko azterlanak egingen lituzke. Alegazioa ezetsi egin da.

4.- ERANTZUNA PARTIKULARREN TALDE BATEK EGINDAKO ESKAERARI

Hamar partikularrek egindako eskaerari modu bateratuan erantzunen zaio hemen. Eskola mapa honela aldatzea eskatu dute:

- 2023-2024 ikasturtean D eredua irekitzea Urrozko HLHIPn, Haur eta Lehen Hezkuntzan.

ERANTZUNA: Hezkuntza eredu berri bat ikastetxe batean eskaintzeak eragin dezake ikastetxe osoan, eta eragin hori handiagoa izan daiteke ikastetxe txiki batean. Halaxekoa da Urrozko HLHIP (gaur egun hiru ikastaldetan banatutako 27 ikasle ditu). Aldaketa horrek ikastetxean eskolatutako ikasle guztiei eragin diezaiekeenez, ukitutako herrietako udalek egin beharko lukete eskaera. Hezkuntza Departamentuak, eskaera hori jaso ondoren, neurriaren bideragarritasuna aztertzeko beharrezko azterlanak egingen lituzke. Alegazioa ezetsi egin da.

Iruñean, 2022ko martxoaren
10ean. HEZKUNTZAKO
IKUSKAPEN ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

Alberto Urrutia Lecumberri

(Sinadura jatorrizkoan
dago)